



ostiko bidaiari

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa da gure negozioaren funtsezko jarduera zein den identifikatzea, eta hau eginda, beharrezkoak diren langileak kontratatzeko. Hiru funtsezko jarduera mota bereizten ditugu: ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataformak. Nabarmena da gure funtsezko jarduera berezia dela aipatzea, ez baita hiru mota hauen barnean sartzen, zerbitzu bat eskaintzen dugu eta. Hau da, guk eskaintzen duguna aisialdi esparru bat da, hortaz, ez du ez ekoizpenarekin, ez arazoak konpontzearekin eta ez plataformekin edo sare-jarduerekin zerikusirik.

Gure balio proposamena gazteentzat aisialdirako esparru bat sortzea eta bidaiatzeko aukera era merkean eskaintzea da. Hortaz, bide batez, arazoak konpontzearekin erlazioa dezakegu gure enpresa, dena gazteen arazoak konpontzeko helburuarekin sortu baitugu. Hau horrela izan arren, garrantzitsua iruditzen zaigu gure funtsezko jarduera zerbitzu bat eskaintzea dela, ez arazoak konpontzea.

Atal honetan ezinbestekoa da balio proposamena berriro ere gogora ekartzea. Enpresa bezala, gure helburua gure bezeroentzat (bereziki gazteentzat) aisialdirako esparru merke eta dibertigarri bat eskaintzea da, beti ere haiek bidaiatzeko duten beharra asetuz eta kultura berriak ezagutzera emanez. Gure hotelak tematikoak izango direnez, urrunera joan gabe kultura berriak ezagutzeko aukera eskainiko diegu bezeroei, kultura batek barnean daraman guztia kontuan harturik; dantzak, hizkuntzak, tradizioak, gastronomia... .

Lana egiteko dugun modua eta gure helburua kontuan hartuta, argi dago gure funtsezko jarduera ez dela aurretik aipatutako funtsezko jarduera mota tradizionalen barnean sartzen, eta, oso enpresa berritzaile eta berezia garenez gero, gure jarduera nagusia **zerbitzu bat eskaintzea** dela zehaztu dugu, zehazki gazteen aisialdiarekin lotutako zerbitzu bat.



ostiko bidaiari

Gure zerbitzua sortzeko produkzio-jarduera lan konplexu samarra izango da, gauza ugari hartu behar baititugu kontuan, gure produktu edo zerbitzuaren diseinua besteak beste, askotan aipatu dugun bezala, hotel tematikoak sortuko ttugu, zehazki Italia, Hawaii eta Chinan inspiratutakoak. Italia haren gastronomia famatu eta kalitatezkoagatik aukeratu dugu, Hawaii festengatik eta China kulturarengatik.

Hotel bakoitzean 250 pertsona sartuko dira gehienez, kopuru txikia hautatu dugu haientzat esperientzia ezinhobea prestatu ahal izateko, hau da, kalitate hoberena eskaintzen saiatuko gara. Horrez gain, arazo ugari eduki ditzazkegula kontuan harturik, hauek murrizteko helburuarekin; mediku bat, menu bereziak (alergia dituztenentzat edota begetariano eta beganoentzat), behar berezietara egokitutako ekintza eta erraztasunak eta bezeroari arreta 24 orduz.

Plataforma eta sare-jardueraren harira, gure funtsezko jarduera ezagutzera emateko, sare sozialak eta webgunea (ostikobidaiari.eus) baliatuko ditugu. Hauek ez dira inola ere gure prioritateen barnean sartzen, baina oso lagungarriak iruditzen zaizkigu, beraz hauek aurrera eramateko, aurretik askotan aipatu dugun bezala, informatikoak eta **wix.com** enpresa kontratatuko ditugu.

Ondorioz, argi dago gure funtsezko jarduera zerbitzu bat eskaintzea dela, hau da, ez da STARTinnovak bereizten dituen funtsezko jarduera moten barnean sartzen. Nahiz eta gure jarduera nagusia aipatu, garrantzitsua iruditzen zaigu arazoak konpontzea eta plataformak kudeatzea gure enpresak aurrera eramango duen jarduerak izango direla ere aipatzea.